

CURRICULUMENKO EDUKIAK

1. multzoa.-Hitzezko hizkuntza.

1.1. Entzun, mintzatu eta solas egitea

1.1.1. Eskolan eta gizartean erabiltzen diren ahozko testuen ideia orokorra ulertzea.

1.1.2. Curriculumeko beste hizkuntzen ahozko testuen ideia orokorra ulertzea, ikasgelako eguneroko egoeretan eta gai ezagun eta arruntei buruz hitz egiten denean.

1.1.3. Komunikazioko ohiko egoeretan aktiboki parte hartu eta entzutea.

1.1.4. Hizkuntza bidezko trukaketa erregulatzen duten arauak egoki erabili, hitz egiteko txanda errespetatu eta arretaz eta errespetuz entzutea.

1.1.5. Ahozko hizkuntza gero eta gehiago erabiltzea gertaerak gogoratu eta kontatu, jakintza arloak aztertu, ideiak eta sentimenduak adierazi eta bere eta besteen jokabidea erregulatzeko.

1.1.6. Ahozko hizkuntza nola funtzionatzen duen pixkanaka ikasi eta haren alderdi fonikoei eta lexikoei buruzko interesa izatea.

1.1.7. Hizkuntzei buruzko jarrera positiboa izatea.

1.1.8. Adinaren arabera lexiko egokia, zehatza eta aberatsa eta gramatika egitura egokiak erabili eta doinu egokia eta ahoskera garbia izatea.

1.1.9. Curriculumeko beste hizkuntzetako elkarrizketetan parte hartzeko interesa izatea, ohiko jardueretan eta komunikazioko egoera arruntetan.

1.2. Hizkuntza idatziaren hastapenak

1.2.1. Hizkuntza idatziari hurbiltzea komunikatu, informatu eta gozatzeko bidea den aldetik.

1.2.2. Forma idatziak eta adierazpen grafikoko bestelako formak bereiztea.

1.2.3. Idatzizko hizkuntzaren euskarriak gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea (liburuak, aldizkariak, egunkariak, kartelak edo etiketak).

1.2.4. Beste pertsona batzuek irakurtzen dutena arretaz eta interesaturik entzutea.

1.2.5. Idazmena benetako helburuak betetzeko erabiltzea.

1.2.6. Idatzizko testua egituratzen duten oinarrizko elementuak aipatzeko berriazko hitzak erabiltzea (izenburua, azala, irudia, hitza, letra ...).

1.3. Literaturaren hastapenak.

1.3.1. Ipuinak, kontakizunak, elezaharrak, poesiak, errimak edo asmakizunak, bai tradiziozkoak, bai gaur egunekoak, entzun eta ulertzea, atsegin hartu eta ikasteko bide gisara.

1.3.2. Poesiako testu batzuk, folklorekoak nahiz idazle batenak, errezitatzea, eritmoak, errimak eta hitzen edertasunak sortzen dituzten sentsazioekin gozatzu.

1.3.3. Dibertitu eta ikasteko hizkuntza jokoetan era sortzailean parte hartzea.

1.3.4. Literatur testuak dramatizatu eta hizkuntzaz kanpoko baliabideen bitartez adierazteko interesa eta gustua izatea.

1.3.5. Literatur produkzioek sortutako interpretazioak, sentsazioak eta emozioak partekatzeko interesa izatea.

1.3.6. Liburutegia errespetuz eta kontuz erabili eta liburutegia baloratzea, denbora pasatu eta gozatzeko baliabide informatiboa den aldetik.

2. multzoa.-Ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien hizkuntza.

- Ordenagailua, kamera, soinuaren eta irudien erreproduzitaileak eta bestelako baliabide teknologikoak erabiltzen hastea.
- Filmak, marrazki bizidunak, bideo-jokoak eta antzeko ikus-entzunezko produkzioak ikusten hastea.
- Errealitatea eta haren ikus-entzunezko errepresentazioa pixkanaka bereiztea.
- Ikus-entzunezkoen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak neurritz erabiltzeko beharraz ohartzea.

3. multzoa.-Arte hizkuntza.

- Plastika-hizkuntzaren osagai batzuk esperimentatu eta aztertzea (linea, forma, kolorea, testura, espazioa ...).
- Gertaerak, sentimenduak, emozioak, bizipenak edo ametsak adierazi eta komunikatzea produkzio plastikoaren bitartez.
- Inguruko obra plastikoak interpretatu eta gero eta egokiago baloratzea.
- Ahotsaren, gorputzaren, eguneroko objektuen eta musika tresnen soinu-ahalbideak ezagutzea.
- Ingurune natural eta sozialeko soinuak ezagutu eta haien ezaugarriak eta oinarritzko kontrasteak bereiztea.
- Inguruneko musika obrak modu aktiboan entzutea.

4. multzoa.-Gorputzaren hizkuntza.

- Keinuak eta mugimenduak esperimentatu eta komunikatzeko baliabideak direla ikastea.
- Beren gorputzak espazioan eta denboran mugituz komunikatu eta adierazteko erabiltzea.
- Pertsonaiak, gertaerak eta egoerak naturalki aditzera ematea joko sinbolikoetan.
- Parte hartzea.

GURE EDUKIAK

Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala	Inguruaren ezagutzea	Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena
1. Gorputz atalak identifikatzea eta gorputz eskema	1. Animalia ezberdinen jarrerak eta bizimodua	1. Gaiaren hiztegia 2. Gaiaren hitzen erreprodukzioa

<p>nolakoa den lantzea animaliak imitatuz.</p> <p>2. Gorputzaren gaitasun motrizen esploratzea eta konparaketa zentzumeneren erabilera: sentsazioak eta pertzepzioak</p> <p>3. Zentzumeneren erabiltzea: sentsazioak eta pertzepzioak</p> <p>4. Sentimenduen, emozioen eta bizipenen identifikatzea eta adieraztea</p> <p>5. Ingurumena zaintzea eta balioztatzea</p> <p>6. Jardueretan parte-hartze autonomoagoa izatea</p> <p>7. Adi egoteko eta ahalegin ohitura garatzea, ongi egindako lana baloratzea</p>	<p>ezagutzeko interesa izatea</p> <p>2. Mapak, mundu bola, argazkiak, liburuak... behatzea</p> <p>3. Animalia mota desberdinak ikertzea</p> <p>4. Ur, aire edo lurreko animaliak bereiztea eta identifikatzea</p> <p>5. Eraldi prozesua behatzea</p> <p>6. Klima desberdinak identifikatzea: basamortua, oihana...</p> <p>7. Narrastiak, anfibioak, ugaztunak, hegaztiak, intsektuak eta arrainak klasifikatzea.</p> <p>8. Zenbakikuntza sistemara hurbiltzea (animalien zenbaketa)</p> <p>9. Haien eta objektuen posizioa agertzea.</p> <p>10. Zenbatzaileak aplikatzea</p>	<p>(marraskia-hitza lotu, kopia, ahozko diktaketa)</p> <p>3. Zerrenden lanketa</p> <p>4. Animalien eta haien inguruen argazki propioak identifikatzea eta ezagutzea</p> <p>5. Aldaketa linguistikoa arautzen duten arauak eta formulak erabiltzea</p> <p>6. Kondairen eta ipuinen entzumena eta memorizazioa lantzea</p> <p>7. Narrazioen ulermena eta atentzioa lantzea</p> <p>8. Gaiaren gaineko mural bat talde lanean egitea</p> <p>9. Gaiaren gaineko pelikulak eta bideoak ikustea</p> <p>10. Mozorroak eta maskarak egitea</p> <p>11. Oihaneko liburuaren antzerki bat egitea</p>
---	--	--

	(asko/gutxi, bezainbeste...)	12. Sentimenduak eta emozioak adieraztea 13. Musika animalien inguruko abestiak entzutea 14. Animaliei buruzko jokoak egitea 15. Plastika ariketak egitea (buztina eta harea)
--	---------------------------------	---